

IL AZALPEN PROBA • 7 kolore	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**zure IL lanean bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
 5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua:

Telebistan ematen ari ziren saio aspergarriaz nazkatuta, ateko kristaletik kanpora begira paratu nintzen, pixka bat errukiturik, pixka bat lotsaturik, eta han pilatutako jendetzaren artean pertsona batek erakarri zuen nire arreta: bi umerekin eta euron gurasoak bide zirenekin zegoen atso bat. Gurasoak jarleku baten erdian zeuden eserita, elkarrekin berriketan, eta umeak lurrean jolasten. Amandrea, berriz, jarlekuaren azken muturrean zegoen kokaturik, fardelez inguratuta, isilik eta geldia, zigortuta legez.

Haren antzeko atso asko neuzkan ikusita Txinan zehar, eta beti izan nuen, itxurari erreparatuta, molde baten arabera eginda zeudelako irudipen bitxia: gehienak txikiak izaten ziren, hanka-laburrak; atzerantz orraztutako ile zuria edukitzen zuten, eta telazko praka ilunak eta alkandora zuria janzten zituzten. Horrez gain, edonon zeudela ere, isilik eta serio ageri ziren, familiako gainerakoei entzuten edo atzetik jarraika pauso txiki baina bizkorrak emanaz, ezer proposatu gabe, iritzia emateko beldurrez bezala. Pentsa zitekeen inork ez zuela haien falta igarriko, menturaz atzean geratu eta betiko galduko balira.

Geltokiko amandrea ere molde hartakoxea zen, ez zuen zirkinik egiten eta begirada puntu zehaztugabe batean finkatuta zeukan. Neure buruari galdetu nion zein ote zen haren betebeharra familian. Ahalik eta traba gutxien egitea bizitzeko geratzen zitzaizkion urte urrietan?

IL AZALPEN PROBA • 7 kolore	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua **–zure IL lanean bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
 5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua:

Haren adats luzearekin jolasean zebiltzan tximino txiki bien garrasiek eten zuten nire solaskidearen jarduna. Banana bat eman zion bakoitzari alboan zeukan mordotik eta tximinoek, pixka bat lasaituta, nigan jarri zuten arreta, arrotz etorri berriarengan. Emakumeari so egin nion orduan eta haren begi-nini ñimiño eta sarkorrekin egin nuen topo. Bera ere isilik zegoen, ezinbestean egin behar nion galderaren zain.

—Zergatik ez du inork hemen bizi nahi? —ausartu nintzen itauntzen, azkenik.

—Rubiah-en izpirituaren beldur direlako.

Jarraian, mutil-lagunarekin haserretu ondoren irla hartan arbuaturik eta isolaturik bizi eta hil zen neska gaztearen istorioa kontatu zidan.

—Eta zuk ez duzu beldurrik sentitzen? —galdetu nion narrazioa bukatu zuenean.

—Niri bizidunek sortu dizkidate arazoak orain arte —erantzun zuen—. Hilen izpirituekin, ostera, gustura bizi izan naiz beti. Izpirituekin eta nire tximinoekin. Gainera, Rubiah-ek babestu egiten nau, duela hamabost egun norbaitek ni izorratu nahian eragin zuen sutean bezala.

Hitz horiek esanda, bananak jan ondoren nire bularreko bizar eta titipuntekin zaletzen hasita zeuden tximinoei dei egin zien. Altzoan hartu eta bie i laztanak egiten hasi zen. Gero hodeiertzera begiratu zuen eta, iluntzen ari zela igarrita, irribarre enigmatikoa erakutsiz zera galdetu zidan:

—Hemen pasatuko duzu gaua?

IL AZALPEN PROBA • 7 kolore	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua **–zure IL lanean bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
 5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua:

Hiru poliziarekin jesarrita nengoen, kalean ipinitako mahaitxo baten inguruan. Lehenengoa, freskagarria eskaini zidana, pasaportea aztertzen ari zen; bigarrenak, zintzo itxurakoak, zerbait eskatzen zion, eskuez keinu nabarmenak eginez: "Utziozu joaten mutilari, ez du ezer txarrik egin eta" imajinatu nahi izan nuen; eta hirugarrenak, begiak gorriturik zeuzkan gizon sendo batek, ez zuen ezer esaten eta serio begiratzen zidan haizemaile txiki bati eragin bitartean.

—Baduzu bisarik? —galdetu zidan lehenengo poliziak, freskagarria eskaini zidaneko jatortasunaz ahaztuta.

—Bai, jakina —erantzun nion, irribarre behartua eginez—, bestela ezin izango nintzen Pakistanen sartu.

Berrogeita bost gradutik gora markatzen zuten termometroek ekaineko egun hartan Lahoren. Alboan geneukan eguzkitako erdi hondatuak ez gintuen laurok ondo babesten eta izerdi tanta lodiak senti nitzakeen gorputz osotik irristatzen.

—Zer daukazu motxila horretan? —itaundu zuen, pasaporteko orrien azterketa amaitutakoan.

—Hemen? —berriro irribarre ahaleginez—. Ezer gutxi, kapela eta beste arroparen bat.

Motxila txiki hartan bidaiara eramandako diru guztia neukan, euroak eta travel-txekeak, baita argazki kamera eta bueltarako hegazkin txartela ere. Dena neukan han, den-dena, ostatuko segurtasunaz fidatu ez eta.

IL AZALPEN PROBA • 7 kolore	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua **–zure IL lanean bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta iritzia ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
 5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua:

Horri buruz gogoetan ari nintzela, etxeko andrea azaldu zen begiratokira eta Mr. Shah-ek, eskua samurtasunez ezarriz haren sorbaldan, bigarrenez egin zuen galdera, are hunkituago:

—Ez al da ederra, laztana?

Ez zegoen erantzun beharrik, atsoaren aurpegiko atsegin keinuari erreparatzea nahikoa baitzen berak ere ohiko ikuskizun harekin gozatzeko ezohiko gaitasuna gordetzen zuela konturatzeko.

—Zorionekoak izan ginen –esan zuen andreak– Almorán jaiotzea suertatu zitzaigunean.

—Eta zorionekoak izan gara –erantsi zuen senarrak Jainkoek bizitza oso honetan paraje eder honetaz bakean gozaten uzteagatik.

Haize leunak hostoen arteko igurtziak eragin zituen eta, ondorioz, ikuskizun harmoniatu harekin ezin hobeto ezkontzen zen hots lasaigarria sortu zen.

—Ez dut inoiz honelako zuhaitzik ikusi –esan nuen ahapeka, zurrumurru goxo hura estali nahi ez nuela–. Zelan dauka izena?

—Ez dakit zelan deritzon kanpoko hizkuntzetan –erantzun zuen Mr. Shah-ek–, baina hindizko hitzaren esanahia "Jainkoen zuhaitza" da.

Beste barbarik ahoskatu gabe, eguzkia guztiz ezkutatu eta zerua urdintasuna galtzen hasi zen arte egon ginen hirurok begiratokian. Orduan atso-agureak, eskutik helduta, erretiratu egin ziren eta ni neure logelara itzuli nintzen. Han, leiho irekiaren aurreko aulkian jesarrita, neure buruari galdetu nion zenbat halako une eta sentrazio berezi utzi ohi ditugun alferrik galtzen...